

Gazteak eta gaurko giliarfeak

Gazteak oro gaurkoak zoro?	ALA	Gazteak oro dire urre?
-------------------------------	-----	---------------------------

Gazteak **Wzketan**

Beti izati ditugu gazteak pil-pil gizartearen barnean. Gazteek gertaerazi dituzte hainbatetan gizartearen kondaira aldaketak. Gaur egun ere hor ditugu inguruetan irakiten, egon ezinda, gizarte hau txilipurdika hankaz gora bota nahiean edo.

Sarri, esan eta entzun, idatzi eta irakurri ohi izan dugu eta edonun gainera, gaur egunetako gazteak zoro batzu, nagi alper batzu, lotsabako arduragabe batzu, pasota buruarin batzu, drogazale galdu batzu eta ez dakit beste zenbat gauza direla.

Baina zenbateraino ete dira egiazkoak entzuten eta irakurtzen ditugun guzti horiek? Oraingo gazteak lehenagokoak baino gaiztoagoak, ustelagoak ete dira?

Gure arteko komunikabideetan, drogak edo lapurketak edo bortxaketak edo biolentziak edo halakoak direneati, gelienetan horiek guztiak, besterik gabe, gazteei leporatzen zaizkie.

Halako ekintzak kritikatzean, gainera, berba hutsetan geratzen gara gertakizun guzti horien iturburuak nondik norakoak diren aztertzerako beharrea.

Gu nagusiok, gazteak epaitzerakoan geure neurria erabiltzen dugu

guk geuk eginiko gizarte honetako bizi-moldeak aldaezinak eta hobere-
renak bailira bezala. Gazteen esanei entzungor egiten ohitu gar a.

Arazo latza, zaila eta sakona, ba, esku artean hartu dugun hau.
Dena dela ezinbestekoa dugu, guk nahi edo nahi ez, guk jaramon egin
edo ezentzun egin, gazteena izango baita geroa.

Beraz gazteengana hurbildu beharra dugu. Beraien ikuspuntuak eza-
gutu beharra. Lelokeria, eta behar bada baita ere zorokeria genuke
gure begi-belarriak itxi-gortu egitea.

Nik, neuk, ustekabean, gazteen pentsamenduen mundu horretaraino
hurbiltzeko aukera izan dut. Hain zuzen, Gabonetan nire euskarako
ikasleei *gazteak eta gaurko gizartea* gaiari buruz lerro batzu idazteko
eskatu nien eta harriturik utzi naute, hain zorrotz eta hain garbi min-
tzatzen baitira.

Gazte horiek beraien idazlantxoetan hain eritzi eta kritika jakinga-
rriak eskeintzen dizkigutenez, onuragarri iruditu zait eritziok sorta ba-
tetan bildu eta denon hauzmarketarako hemen argitaratzea. Interesga-
rriak ditugu gazteen pentsamoldeen nondik norakoak ezagutzeko.

Zenbaitentzat, gainera, eritziok oraindik jakingarriagoak izango dira
eritziok, hemen hitz egiten digutenak Magistergo karrerako ikasleak
direla kontutan hartzen baldin badugu, horiek izango baitira bihar etziko
gure Euskal Herriko umeen hezitzaileak.

Esan bezala, ba, hemen dituzue jarraian, inolazko azalpenik gabe
nork bere ondorioak atera ditzan, gazte horien lanetatik ateratako eriz-
punturik nabarrienak.

a) Gazteak gaurko gizarte barnean Jekua egin ezinda dafoiltza

«Gazteok paper garrantzitsuena daukagu gaurko gizartean; guk
geure eskuetan daukagu zibilizazio honen etorkizuna. Baina lan hori
oso zaila da, gure gizartean ez dagoelako erraztasun handirik (...)
Asti asko daukate baina ez dago asti hori betetzeko ez dirurik ez
lekurik. Gazteak aspertu eta desesperatu egiten dira; horregatik
hartzen dute. droga, baina hori oso garestia da, eta droga erosteko
dirurik ez daukatenez, farmaziak eta. abar lapurtzen dituzte, Gero
kartzelara eramaten dituzte eta giro horretan antigizarte aldatzen dira.
Dena katea bat da».

«Denbora aurrera doan araueran jendearen ohiturak eta pentsamoldea

aldatur doaz. Lehengo ohiturak eta oraingoak guztiz ezberdinak dira. Gaur egunetako *gazteak* erraztasun eta posibilitate gehiago dauka bizitzan aurrera jotzeko (...) Sarritan lasai bizi da eta nabi dituen gauzak erraz lortzen ditu. Maiz etosotasun horrek gaitz asko dakar; esate baterako, ez dugu orain arte horrenbeste gazte drogari lotuta ikusi».

«Zaharrek esaten dutenez, gazteok daukagu pasatzen den guztiaren errua. Konformagaitzak, errebelatuak, alferrak eta ez dakit zenbat gauza gehiago garelako. Eta ez diot hau gazte naizelako, ez, ordu guztietan berdina entzuten dudalako baino».

«Jendeak esaten du, gazteok beti gaudela hona eta hara joateko kotxe bat eskatzen baina kotxea ez dugu guk asmatu; gazteak diskategira joaten dira baina diskategien ugazabak ez dira gazteak zaharrak baino; gazteek porroak erretzen dituzte baina hori ez da gaurko kontua, beti erre dira, kantitate desberdinak eta leku desberdinetan, baina hori nahiko izan da orain hainbeste gaztek bide berdina jarraitzeko. Nire ustez, gazteok erru handia daukagu baina zaharrak ez dira libratzen».

«Kontsumozko gizarteko fenomeno bereziak hauek dira: modan egoitea, gauza berriei kultoa eukitea, agintariei errespetoa galtzea, eta gazteriaren errebeldia (...) eta gainera lan guztietan diziiplina gogor bat dago; orduan hemendik hasi ziren nonbait errebeldiak eta ez bakarrik lantegi kapitalisten kontra, baizik eta gurasoen kontra ere bai, ba hauek gazteei laneko diziiplina eskuratu egin behar zela esaten zieten. Orduan, gazte batzuk protestatzeko, heuren esaten duten bezala, denetik pasatzeko, drogazale bihurtzen dira, ileak eta bizarrak luze eramaten dituzte, soineko gastatuak erabiltzen dituzte...».

«Zein da, orduan, gazteek jarraitzen duten aukera? Ba, aukera errezena: moda jarraitu, saltoka saltoka ibili moda batetik bestera (...); erre, edan, drogatu, festa-geletako zarata, kea eta abar gaurko gazteen premiak dira, ez denenak, noski (...) baina ez gara gizartearen gaisotasun, gizarte honen erantzuna eta argitasuna baizik. Guregan erreflexatzen dira gizartearen arazo emaitz gabekoak».

Gazteek gogor kritikatzten dute usteldutzat jofzen duten gizarte hau

«(...) eten gabe entzuten dugu gaurko gazteak ez direla inoiz konformatzen, beti protestaka dabilzala, mizkeegi daudela eta halako hainbat eta hainbat gauza. Gazteak, oster, gizartea eta gizarte hau egin dutenak kritikatzten dituzte. Batzuk gizarte ustel honen kontra burrukatzen dute, aldatzeko asmoz; Beste batzuk kritika hutsetan gelditzen dira; Azken hauek gizarte honek ez daukala irtenbiderik eta ahalik

ondoan pasa behar dela diote. Gizarte honen partaide sentitzen ez direnez, ez dira gizartean dauden arazoetaz arduratzen. Azken urteotan bigarren talde honetan geroago eta gazte gehiago dagoela ikusten dugu, alkohola, droga eta beste hainbat irtenbide sartu direlarik. Eta hau zer dela eta? Nire ustez, gazteria loartzeko interes ezkuak daudelako».

«Gaurko gizartea oso kraskaturik dagoenez (...) gazteak pasotismo baten sartzen dira, gizarteak ez duelako oinarri sendorik. (...) Lantegiak gero eta txarrago daude; gazte gehiago aurkitzen da lanik gabe. Horregatik eta beste gauza askogatik gazteak ez daude gaurko gizartearekin konforme».

«Gazteak gizarteko ore izan behar direla esaten dute zaharrek, baina oraingoak erreta omen daude. Zergatik? Egia ote da hori? Behar bada bai, baina nire ustez, esan behar da denak ezetz, nahiz eta gehien batzu bai egon. (...) Baina gazte horiek nagusi egin dira eta argi ikusten dute mundua; baita ere huts-hutsik sentitzen dira eta pentsatzen jartzen dira. Momentu honetan devaluaketak sortzen dira: ez dakitela ezer, ez direla ezer egiteko gai; eta gainera gizartea oso txarto egina dagoela ikusten dute. Honen aurrean zer egin. Hutsunea bete, noski, baina zerez? Hemen desberdintasunak daude: batzuk lanaz eta beste batzuk, drogaz, delikuentziaz eta abarrez».

«Nire ustez, oraingo gazteria, zentzu askotan, informazioaren eragipenez, komunikabide eta kulturaren merkatzeari esker, helduagoa da. Guzti honek independentziaren senthendua sortarazten digu. Sentimendu honek, berriz, ez dauka irtenbide arinik, oraindik ekonomikoki gure gurasoei lotuak bait gaudu. Gainera, krisiak lokarriak sendotu egiten ditu. Laburketa bezala hau esan dezaket: gure heziketak ez gaituela gure gizarterako prestatu».

Gazteak, aiskerank ez eta lur Jota, barnea hutsik, nazkatuta bizj dira

«Gaurko gizarteak eskeintzen digun panoramika nahiko kaxkarra iruditzen zait. Alternatiba politikoak eta ekonomikoak aurreko gazteriarengan finkaturik daude eta ez dituzte oraingo gazteriaran eritzi konkretuak kontuan hartzen. Gaurko gazteria ez da identifikaturik sentitzen. Politikoki desenkanto batetara eraman gaituzte; ekonomikoki paro izugarri batetara. Benetan arlo guztietan sinismen falta nabari da eta balore gabeko gizarte bat bizitzen hasi gara».

«Bizi dugun mundu honetan krisiak eragipen gehiegi du gure gazteen artean; krisi honen erruz deseingainu handia dago gazteen artean eta horregatik, soluzio bat bilatu dute: porroa; eta denok dakigu zer ekaritzen duett horrek».

«Gaur egun gazte asko dago munduan. Batzuk lana egiten dute, beste batzuk ikasi eta beste batzuk ezer ere ez. Zergatik? Ba, lanik ez dutelako edo eskoletan heurentzako lekurik ez dagoelako. Arazo honegatik gizarte honetan gazteentzat buruhauste asko daude. Askok deseperatuta bizi dira».

«Gazte batzu gizarte barruan sartzen dira, baina beste batzuk ezin dute eta bere kontra doaz; beste aide batetik beste gazte batzuk zerbait behar dute beren denborako gizartearen bizitzeko eta borregatik edaten dute eta baita ere drogatzen dira, heuren arazoak ahanzteko edo beste mundu batetara joateko, nahiz eta bost minutu zoriontsu bizi».

«Gizarte honetako ahulkeria eta gaiztakeriaren ondorio gisa gazteen egoera daukagu. Denok ikusten dugu zenbait gazte nora-ezean dabilela eta ez bakarrik hau; gazte askoren kasutan gaixotasun psikiko eta fisiko esberdinetako adierazpenak nabari direla. Adibidez, alkoholismoa, delikuentzia..., forma hauen sakonean bizitzeko esannahi-eza, bildurra, eta bakartadea aurki daitezke. Baina egia esan, errua ez da bakarrik gazteena. Nire ustez, hobeki esan dezakegu, gazteek heruen bideetan ezereza aurkitu dutela eta jende nagusien bizitzako pobretasuna eta gezurra agertu zaizkiela».

«Pasotismoaren gizarte berrian bizitzea tokatu zaigu. Bakoitza bera da eta besteak ez daude munduan. Gazteen artean sarritan entzuten dira: *gizarte honek nazkatu egin nau, ezin dut jasan. Ez daukat konfiantzarik; nire aitarengan ere ez. Gizarteak ulertzen ez nauenez nik ere ez daukat bere zertan ulertu. Nik, behintzat, entzun ditut halako gauzak. Baina pasotismo hau laguntza bat da poderearentzat. Horregatik mobilizatu egin behar da, fazismo batetan amaitu nahi ez badugu».*

Gazteek langahezia eta honen ondorioak diiozfe arazonk nagoscenak

«Askotan eta askotan entzuten da gaurko gazteek ez dutela lanik egin nahi, drogak direla eta gazteria galduta dagoela eta abar. Baina, nire ustez, gehien bat hitzak baino ez dira. Non egingo dute lan gazteek, lanik ez badago? Nola esan daiteke, orduan, gazteak alperrak direla ez badute lan posturik sortzen? Honetan ikus ea egia den ala ez esaten dudana».

«Guk orain momentu txar bat pasatzen dugu: ez dago lanik. Gazteek ez dute topetan beharrik, ez daukate nondik bizi eta orduan dirua eskuratzeko lapurretan egiten dute. Lehengo gizarte oso diferentea zen. Lehengo gazteek ikasten zuten eta denentzat egoten zen lana. Orain gazteengan droga asko dago. Zergatik dago droga?»

«Orain gu Magisterion ikasten gaude baina hemendik irten ondoren ez dugu lanik izango eta gazte guztiak bezala paroan egongo gara. Nagusiek, porrozaleak eta pasotak ikustean, gazteok alferrak garelara eta ez dugula lanik egin nahi esaten dute, baina nik ez dut uste honela denik, baizik eta lanik ez dagoelako jendea erreta dagoela. Jende askok, eta ez bakarrik gazteek, porroa eta alkohola irtenbide bat bezala onartzen dituzte; nik ez dut hori irtenbide bat bezala ikusten baina ulertzen dut».

«Langabezia dugu gaurrengoko zirkustantzia bat; horrek gizarte lan-gabeduna sortarazi digu, eta gazteok zirkustantzia eta gizarte horren aurrean, harriturik eta desilusionaturik gaude; zer egin dezakegu zirkustantzia hau aldatzeko eta beste gizarte hobe batetara abiantzeko? Guzti honen aurrean, bakoitzak bere aukera du. Batzuk, ilusioak aide batera utziz, ahal duten lanean sartzen dira aurrera irteteko; beste batzuk, ordea, lan hau guztiz zaila eta zapaltzailea dela eta errazenera jotzen dute: lapurretara, alegia. Beste zenbait gizarteak sortutako beste zirkustantzia batetan jausten da: drogan, hain zuzen ere; azken hauek, une batez, beraien gizarte zoragarriaz egiten dute amets; gero, ...etsipena barrero».

«Gaurko gizartean gazteak aurkitzen duen problema handiena langabezia da. (...) Nire ustez, penagarria da lanagatik bakoitzak bere bizimodua ezin egin izatea, hau da, gaztea urte pila batetan aitapean egon behar izatea».

«(...) bai ere, orain gazte asko lanik gabe daude eta ez dakite zer egin; horrela askok drogetara jotzen dute. Beste asko delikuyente egiten dira eta horrela gazteria gero eta gehiago galtzen doa. Ez balira hainbeste gazte lanik gabe egongo, ez lirateke horrenbeste drogadikto eta delikuyente kaleetan egongo».

aurkitzen dira

«Lehenago gazteak, nire amak esaten duen bezala, hobeagoak ziren eta bizimodu hobeagoa eroaten zuten. Bere denporatoko gazteak denak batera ibiltzen zirela esaten du; gaur egun ez da holakorik egiten; bakoitza bere kuadrilarekin ibiltzen da eta ez du hortik urtetzen; herri batetako gazteak ezagutzen gara baina ez daukagu lehenago gazteek edukitzen zuten adiskidetasunik; bakoitzak gure problemak dauzkagu eta ez zaizkigu besteen gauzak inportatzen. Hau, gaur egun bizimodua gure herrietan eta gure hirietan arin doalako izan liteke».

«Beste gauza bad begira jarrita, gizarteak ez dituela gazteek denbora libre pasatzeko behar dituzten tokiak jartzen ikusten dugu. Eta

herrialde guztietan tokiak jarri beharko lituzkete, gazte bakoitzak denbora librean berari gustatzen zaion gauza egiteko: irakurri, deporteren bat jokatu, jobi legez zeozer ikasi: musika, ekologismoa, zeramika etab.».

«Gazte horiek lehenengo edukazio bat eta gero lan bat behar dute. Baita ere hainbat eta hainbat taberna egin beharrean, jolastoki gehiago egin beharko lirateke herrietan jendeak astia daukanerako. Horregatik guk behar duguna, lantoki eta jolastoki gehiago egin eta tabernak eta drogak debekatzea da».

«Dibertitzeko ere ez daukate posibilitaterik eta beste kontsolamendu bat bilatzen dabilta: batzuk taberna batetik bestera ibiltzen dira; beste batzuk diskotegietan egoten dira eta txarrago daudenak droga-munduan sartuta daudenak dira (...). Beste aide batetik gazteek arazoak daukate pertsona elduekin; ez dira identifikatzen haiekin eta ez dago bien artean ulertzerik. Inork ez du inor konprentzen ez dagoe-lako haien artean elkarriketarik».

Gazteek ez dute gaurko **gizarteko** engranaietako **hatzaparretan** erori nahi

«Mundu zabalean, gaurko eta betiko gazteak, gizarte zapaltzaile batekin aurkitu izan dira. Haien begi gazte eta garbiei, nagusiek zaintzen dituzten baloreak eta erakundeak, saldukerian, erlijio kaikueta eta jauntxokerian finkaturik daudenak, gezur huts eta zalantzan jartze-koak bezala agertzen zaizkie. Gazte indarrak eraginda, egoera guzti hau ikusirik eta aztertutik, iraultzaile eta urduritsu bihurtzen dira gehien bat. Baina ez luzarorako. Lehenengotan ezinegon honek urteera erraz eta faltsu batzutura bultzatzen ditu. Adibidez, politika, drogak, guruak eta abar. Eta zer ulertu gabe nazkakeria hauek dastatu ondoren, haien gazte itxaropenak galduta gero, nagusien gizartea onartu eta indartzera aldatzen dira, inoiz aurkituko ez duten zorientasun eta lasaitasun bila».

«Gaur egun dugun kontsumozko gizarte honek bere barne-egituraren engranaiak, nolabait gaztearen jokabideak bereganatu eta murriztu egiten ditu. Honela sarri askotan gazteria ideia gabetasunez epaitzen da, arazo horren errua nork duen galdetu gabe. Baina esan beharrezkoa da, gazteriak hartu dituen irtenbideak desegokiak direla. Ezin dugu onartu aisi-tarteak bete ezinean bere arduetatik ihes egitea. Lehen aipatu dugun engranaiaren aurka jokatzeko baliogailuak bilatu beharra aurkitzen da eta baliogailu hauek ez ditugula gaurko modernismoaren barnean topatzen esan genezake».

«Gazteak, ez gaur bakarrik, beti izan dira kontestatarioak. Horregatik

agertzen dira gaurko gizartearen kontrakoak bezala; berarengandik aide egin nahi dute baina ezin dute, heurak ere gizarte direlako. Jende guztia izan da gazte, gaurko zaharrak atzoko gazteak ziren eta orain heuren izakera aldatuta egonarren gogoan edukiko dute heuren gaztaroa. Gaurko gazteak ez dira ezberdinak; Iehenagoko gazteek bezala, gizartearen aurrean kontrako egokera bat hartzen dute».

«Gaur egun asko entzuten dira esakera hauek: *Oranigo gazteak zoroak dira; lehen ere gazteak izandakoak gara*. Gaurko gaztea ez da gizarteaz konformatzen, ez du gizartearen jokabidea ondo ikusten eta horregatik bere aurka dago; hori dela eta esaten dute urten duela pasotismo deitzen den mugimenduak. Nik ez dakit mugimendu hau onerako ala txarrerako izango den; zaharrek txarrerako esaten dute. Baina argi dagoena zera da, gazteak bere bizia duela eta berak uste duen jokaera eraman behar duela, nahiz eta gizartea bere aurka egon».

«Gizarteak gure barruan, bere metodoaren bidez konformismoa sortu nahi du, pasibotasun batetara heltzeko. Eta noski, pasibotasun hori nabaritzen da! (...) Hala ere gazte batzuk inkorformistak dira, zeren beren gizarteak ez die burutzen uzten eta beste edozein jende bezala, ez bakarrik gazteak, zapalduta daude».

«Denok dakigu zelan dagoen gaurko gizartea: Polonia, El Salvador, Reagan, Bresnev, etab. Holako gauzak irakurtzen ditugu egunero egunkarietan. Gehienetan irakurtzen eta ikusten ditugunak gauza txarrak dira. Eta ona da, nire ustez, jendeak holako gauzak jakitea. Baina ez daude hauek bakarrik munduan. Beste gauza batzu jazoten direla ere jakin behar dugu; beste pertsona batzu ere bizi direla. Adibidez, *Lanza del Vasto* eta berak sortutako komunitateak. Hil zen arte inork ere ez zekien nor zen Lanza del Vasto. Ez zekien jende gehienak, behintzat. Eta honelako kasuak asko daude. Eta honek harritzen nau. Bizi garen munduko jendearentzat garrantzitsuagoa da akzidente bat egon dela jakitea raundua hobetzeko bideak ikastea baino. Hau lotsagarria da. Umeei holako gauzaaz arduratzen eta ez besteotaz irakatsi behar diegu. Holan lortuko dugu gaurko gizartea hobetzea. Eta Ian hau guztiok egin behar dugu: ikasleok, aita eta amak, zaharrek, gazteok etab.».

g) Hauek honela, ba ete dago *Siau danau* konponltzeko itxaropeniik gazteengan?

«Gaurko gaztea konpromiso berri baten bidetik doa: bizitza berdindu, danontzat berdina, mailarik gabea, gizadiak dituen eskubide guztiekaz egin nahi du. Hemendik doaz gaurko gazte asko ta asko. Beste batzuk gaur egunetako gorabehera hauekaz beren ezjakintasunagatik moztuta

geratu dira, jardinean ustelduta. Gaurko gazteria, nahiz eta batzutan asmo eta usterik onenean bide okerretik ibili, egiaren bila dabil. Ez da gutxi egia bila jartzea».

«Gazteak eta gaurko gizartea ez dira elkarrekin ondo eroaten. Zergatik? Nork daki, ba! Batzuk errua gazteek dutela esaten dute; beste batzuk gizarteak duela. Baina inork ez du errua, ez ere egia. Nire eritziz gazteek gizartearen kontra daudela esaten dute baina ez dute hori konpontzeko heruen aldetik ezer ipintzen. Gazteriak ere badu errua, ba denok dakigu herri bat bere krisi eta bere tokitik ateratzeko gauza asko egin behar dela, baina ez batzuk bakarrik; aldaketa hau eraraateko denok ipini behar dugu apur bat eta gure ezberdintasun guztiak ahaztu egin behar ditugu, ze ostantzean ezin izango dugu herria kanpora atera»,

«Gizarte baten barruan garrantzizkoa elkar ulertzea eta errespetatzea da; hemen dago gizarte baten aberastasunik handiena».

«Hala ere noiz behinka oraingoz gauden ekaizpetik irtetzeko nahia argitaratzen da eta izan bedi itxaropen hau nahi honen abiapuntu».

«Gaurko gizartea, betikoa bezala, gazteen eskuetan dago. Eta nahiz eta sarri gazteria galduta dagoela esan, nik ezetz uste dut. Gertatzen dena zera da: gu, gazteok, ez garela nagusiak bezalakoak eta ez dugula heurak egin zutena egiten. Baina hori, nire ustez, oso normals da. Denbora aldatu egiten da eta ohiturak ere bai. Gaurko gazterian badago jende ona, jakintsua, baketsua..., ere; ez pasotak bakarrik, eta hau leku guztietan bezala izango dela uste dut».

Ondforioa

Eritzi hauek honela, zer esan? Edo eta honen aurrean zer egin? Besterik ezean, gutxinez astiro eta gogotsu dioskutena entzun eta hausnartu eta gazte horiengana hurbiltzen ahalegindu.

Zenbait kasutan, elkar entzuteak, arrazoimendu astunenak eta argienak baino indar eta balio handiagoak izaten ditu.

Oharra:

Lantxo hau bukatzen ari naizela, Bilboko Magistergo Eskolako (beraz hemen hitz egiten digutenean ikaskidea) hamazortzi urtetako neska gazte bat hilik aurkitu dutela jakin dut. Diotenez bere burua hil omen du.

Ez ote dugu hemen aditzera eman diguten zenbait egoeran ispilu? Zerk

nazkatu du bizitzaz eta pausu negargarri hori ematera bultzatu? Zerk agortu du sasoirik onenean neska horren itxaropen iturria?

Norantza bultzatzen ari gara gazteak? Zera-nolako irtenbideak eskeintzen dizkie gaurko gizarteak gazte horiei? Nundik norako etorkizuna izango dute?

Entzungo ote ditugu noizbait gazteek eten gabe egiten dizkiguten oihu etsipentsuak?

Biltzailea eta aurkeztailea
Patxi Uribarren

flrakurri zazute... «KARMEL»

Srakurri-azi **zazute** «KARWIEL»

.'GURE ALDIZKARIA.

«ZURE ERRE8fSTA»

«K A R M E L»

Urteko eskupekoa: 400 pta.

Zuzenbidea: Karmen, 2

EI B AR-GIPUZKOA